

BLACK MIRROR

Arkanjelua



Izena:
Taldea:


IRAKASLEAREN GIDA:

- 1) Irakasleak bakarrik banatuko die 1go ariketaren fotokopia eta erantzunen bateratze lana egingo du, arbelean argudio eta ondorio nagusiak idatziz.
- 2) Gero, dilema bat zer den eta nola egiten den galdetuko die. Arbelean apuntatuko ditu erantzun zuzenak eta Olinpiadako oinarriak aztertuko dituzte denon artean.
- 3) 2. ariketaren fotokopia banatuko du eta ideia-jasa bat egingo dute. Txakurraren inguruko erantzunekin konparatuko dira aldeko eta kontrako argudioak eta ondorioak aterako ditugu.
- 4) Arkangel kapitulua ikusi eta gero, 3. ariketa egingo dute. Bateratze-lana.
- 5) 4. ariketa. Orain, 2. ariketa egingo bazenu, berdin pentsatuko zenuke? Arrazoitu.



1go ARIKETA

Zure auzokideak txakur poli bat dauka. Txiki-txikitatik besoetan eraman du kaletik, ezer ez gertatzeko. Asko maite duenez, babestu nahi du txakurra. Urduri jartzen denean, laztantzen du berehala, gosea badago, janaria ematen dio lehenbailehen eta beste txakurrekin dagoenean kontrolatzen ditu mugimendu guztiak, kosk ez egiteko. Txakur ezezagun bat bat hurbiltzen bazaio, hartzen du eta etxera joaten dira. Duela gutxi GPS bat jarriko diola komentatu dizu.



Bilatu jokabide honen aldeko eta kontrako argudioak eta eduki ahal dituen ondorioak.

Idatzi zutabeetan.

Gero, denon artean komentatuko ditugu erantzunak.

ALDEKO ARGUDIOAK

KONTRAKO ARGUDIOAK



2. ARIKETA

Orain, imajina ezazu zeure burua 15 urte barru. Seme-alaba bat duzu eta albisteetan gertatzen diren gauzek (bortizkeria, drogen kontsumoa, bortzaketak, etab.) beldurra sentiarazten dizute. Gainera, institutuko gurasoek komentatu berri dizute koma etilikoren bat egon dela zure seme-alabaren lagunen artean.

Bestalde, zure seme-alabak autonomia lortu behar duela pentsatzen duzu, bizitzan bere kabuz erabakiak hartu ahal izateko.

Beste guraso batzuek eskatu diete seme-alabei GPS duen erloju bat eraman dezaten. Horrela, jakin dezakete non eta norekin dauden uneoro, Horrez gain, badago aukera bat mugikorrean dituzten elkarrizketak eta sare-sozialeetako profilak ikusi ahal izateko. Seme-alabak seguruago egongo omen dira horrela.

Dilema moral honen aurrean, zer erabakiko zenuke?


Erloju hori eramateko eskatuko zenioke, bai ala ez? Argudiatu.



3. ARIKETA:

Black Mirror (euskaraz Ispilu Beltza) Erresuma Batuko antologia telesail bat da. Charlie Brooker ekoizleak sortu zuen. 2011-2014 artean Channel 4 britainiar katean aineratu zen, eta 2016tik gaur egun arte Netflix zerbitzuan.

Arkangel (Arkanjelua): Ama ezkongabe bat, alabaren segurtasunari buruz kezkatutik, teknologiaz baliatuko da. Ikusi ondoren, erantzun irakasleak emango dizkizun galderari.



NOLA SENTITUKO ZINATEKE NESKA HORI BAZINA?

AMAREN JOKAERA ULERGARRIA IRUDITU ZAIZU MOMENTUREN BATEAN? ARRAZOITU

USTE DUZU GAUR EGUN GURASOEK GEHIEGI BABESTEN DITUZTELA SEME-ALABAK? BILATU INFORMAZIOA GURASO-DRONEI BURUZ

BILATU INFORMAZIOA GEORGE ORWELLEN 1984 ELEBERRIARI BURUZ ETA ALDERATU: ANTZEKOTASUNIK AURKITU DUZU?

AZTERTU IZENBURUA: ZER ESAN NAHI DU ARKANGEL HITZAK? ZERGATIK USTE DUZU ERABILI DUTELA?

ZEIN ASKATASUN MOTA MURRIZTEN DIO AMAK ALABARI?

BEGIRATU GIZA ESKUBIDEEN ZERRENDA. ERRESPETATZEN DIRA?
ARGUDIATU

SEGURTASUNAREN DISKURTSOPEAN, GURASOEK SEME-ALABEN ASKATASUNA MUGATZEKO ESKUBIDERIK AL DUTELA USTE DUZU?

4. ARIKETA: 2. ARIKETA ORAIN EGINCO BAZENU, BERDIN PENTSATUKO ZENUKE?